

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO
BILERA**

2016ko irailaren 30a

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamaseigarren urteko irailaren hogeita hamarrean, ortziralea, ilunabarreko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Pedro Apezteguía Alzugaray, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Maider Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki, Lorea Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote eta Mattin Etxabide Gartzia jaun-andreak.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa egingen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko xedearekin. Akten idazkerari dagokionez, kontuan hartu da 2016ko maiatzaren 20an eginiko bilkuraren 1. puntuan adierazitakoa.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz aritu dira:

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL
AYUNTAMIENTO**


30 de septiembre de 2016

En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes 30 de septiembre del año dos mil dieciséis, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Maider Arrieta Tapia, don Oier Iantzi Ordoki, doña Lorea Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote y don Mattin Etxabide Gartzia.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal. En cuanto a la redacción de las actas, se tiene en cuenta lo indicado en el punto 1 de la celebrada el 20 de mayo de 2016.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:



**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION
AKTAREN ONESPENA**

Osoko Bilkurak aho batez onartu du azken bilkurako akta, 2016ko irailaren 16koa.

**2 – ERAIKUNTZAKO
ORDENANTZAREN 113. ARTIKULUAREN
ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

Udalak eskatu zion Nasuvinsari, hirigintza arloan aholkua ematen dion enpresari, proposamen bat egiteko hirigintzako Udal Planaren Eraikuntzako Ordenantzaren 113. artikulua aldatzeko, lur urbanizaezineko finketako itxituren inguruan. Haren xede da harrizko lauzarekin eginikoak baimentzea (Udalobr/2016/23 espediente da).

Nasuvinsak bere txostena eman zuen ekainaren 15ean (1961. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean, 2016/07/11koa). Bertan proposatzen zen esaldi bat gehitzea aipatu artikuluari, kasu berri hau arautzeko.

Hirigintza Batzordeak espedienteaz aztertu zuen uztailaren 13an eginiko bileran. Jakinarazi zuen beharrezkoa ikusten zuela aldaketa bat sartzea Nasuvinsak eginiko proposamenean.

Espedienteaz ageri da Udaleko idazkariak uztailaren 14an eginiko txostena, proiektaturiko aldaketa onartzeko prozedurari buruzkoa.

Udaleko Osoko Bilkurak, uztailaren 22an

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA
CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA
SESIÓN**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 16 de septiembre de 2016.

**2 - APROBACIÓN DEFINITIVA DE
LA MODIFICACIÓN DEL ARTÍCULO 113 DE
LA ORDENANZA DE EDIFICACIÓN**


El Ayuntamiento solicitó a Nasuvinsa, empresa asesora en materia urbanística, que realizara una propuesta de modificación del artículo 113 de la Ordenanza de Edificación del Plan Municipal de urbanismo, sobre cierres de fincas en suelo no urbanizable. El objeto de la misma es el de permitir los realizados con lajas de piedra (se trata del expediente Udalobr/2016/23).

Nasuvinsa emitió su informe con fecha 15 de junio (entrada nº 1961, de 11/07/2016 en el Registro General del Ayuntamiento). En el mismo se proponía añadir una frase al citado artículo, a fin de regular este nuevo supuesto.

La Comisión de Urbanismo examinó el expediente en reunión celebrada el día 13 de julio. Informó que consideraba preciso introducir una modificación en la propuesta formulada por Nasuvinsa.

Consta en el expediente el informe emitido el 14 de julio por el secretario del Ayuntamiento, relativo al procedimiento para la aprobación de la modificación proyectada.

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión



eginiko bileran, onartu zuen, hasiera batean, aipatu artikulua aldaketa. Horren ondotik, dagozkion ediktua argitaratu ziren 162. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2016ko abuztuaren 23koan, eta Diario de Noticias eta Diario de Navarra egunkarietan, bi horietan abuztuaren 16an.

Jendaurreko epealdian, hilabetekoa, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, zinegotzien aho bateko botoarekin (horrela Udaltzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta), honako hau erabaki du:

1 – Behin betiko onestea hirigintzako Udal Planaren Eraikuntzako Ordenantzaren 113. artikulua aldaketa, lur ez urbanizagarriaren dauden finketan “harrizko lauzez osaturiko zerrakurak egin ahal izateko, 1,20 m-ko altuera gaindituko ez dutenak”.

2 – Igortzea Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura emaniko txostenak, eta erabaki honen berri ere ematea.

3 – Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea bai behin betiko onespenez erabaki hau, baita aldatutako artikulua testu osoa ere.

4 – Erabaki honen berri ematea Nasuvinsari.

3 – ORDENANTZA FISKALETAKO ALDAKETA 2017. URTERAKO. HASIERAKO ONESPENA

2015. urtean Kontsumo-Prezioen Indizea

celebrada el día 22 de julio, aprobó inicialmente la modificación del citado artículo. Tras ello fueron publicados los correspondientes edictos en el Boletín Oficial de Navarra nº 162, de 23 de agosto de 2016 y en el Diario de Noticias y el Diario de Navarra, en ambos casos el día 16 de agosto.

Durante el periodo de información al público, de un mes, no se produjo alegación alguna.

A la vista de todo ello, el Pleno con el voto unánime de los concejales (lo que supone la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación), acuerda:

1º) Aprobar definitivamente la modificación del artículo 113 de la Ordenanza de Edificación del Plan Municipal de urbanismo, a fin de permitir para las fincas situadas en suelo no urbanizable, los “cierres de lajas de piedra con altura no superior a 1,20 m”.


2º) El envío al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra de los informes emitidos, dándosele igualmente traslado de este acuerdo.

3º) Que se publiquen en el Boletín Oficial de Navarra tanto el presente acuerdo de aprobación definitiva, como el texto íntegro del artículo modificado.

4º) La notificación del presente acuerdo a Nasuvinsa.

3 - APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE ORDENANZAS FISCALES PARA 2017

Durante el año 2015 el Índice de Precios al



3

murriztu zen Nafarroan (hain zuzen ere, -%0,1).

Horregatik, eta presio fiskala ez areagotzeko asmoz, udal tasetarako 2014. urtetik indarrean dauden tarifa berak mantenduko dira.

Hala ere, hobekuntza tekniko ttiki batzuk sartu behar izan dira, hainbat kontzepturen idazkerari dagokionez (hori gertatzen da, adibidez, ur-horniduraren tarifen deskribapenarekin edo bide publikoak eta erabilera publikoa duten lur-eremu pribatuak okupatzeagatiko tasarekin). Horregatik, espedientean ageri da heldu den 2017. urtean aplikatu beharreko tributuen zerrenda.

Halaber, ageri da idazkariak abuztuaren 18an emaniko txostena. Hartan, adierazten da erabaki hau hartzeko beharrezkoa dela Udaltzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botua, hau da: 6 boto.

Bertzalde, EH Bilduko udal taldeak bi idazki aurkeztu ditu haien proposamenekin: irailaren 7an (2387. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) eta hil honen 12an (2421. sarrera). Bertan planteatzen dute, igerilekuari eta polikiroldegiari dagokienez, karneta bat ezartzea ikasleentzat, eta laguntzak errenta baxuenak dituztenentzat. Laguntzak eskatzen dituzte ere errenta baxuenak dituztenentzat, kultura jardueretarako.

Ondoren eztabaida izan da eta bertan parte hartu dute Mattin Etxabide zinegotzi jaunak eta

Consumo en Navarra sufrió una disminución (concretamente del - 0,1 %).

Por ello y a fin de no incrementar la presión fiscal, para las tasas municipales se mantendrán las mismas tarifas que están vigentes desde el año 2014.

No obstante ha sido precisa la introducción de algunas pequeñas mejoras técnicas, referidas a la redacción de diversos conceptos (es lo que sucede, por ejemplo, con la descripción de las tarifas por suministro de agua o la tasa por la ocupación de la vía pública y terrenos privados afectos a un uso público). Por ello obra en el expediente la relación de los tributos a aplicar durante el próximo ejercicio de 2017.

Consta, asimismo, el informe emitido por el secretario con fecha 18 de agosto. En el mismo se indica que para adoptar el presente acuerdo es preciso el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación, esto es: 6 concejales.

Por otra parte el grupo municipal de EH-Bildu ha presentado dos escritos con sus propuestas: el día 7 de septiembre (entrada nº 2387 en el Registro General del Ayuntamiento) y el día 12 de este mes (entrada 2421). Plantean en el mismo, respecto a la piscina y polideportivo, el establecer un carnet para estudiantes y ayudas para quienes tienen rentas más bajas. También piden ayudas para las personas con rentas más bajas para las actividades culturales.

Se produce a continuación un debate, en el que intervienen el concejal don Mattin Etxabide y

alkate jaunak.

Hura amaitutakoan, Udalbatzak, Geroa Baiko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta EH Bilduko bortzen kontrakoarekin –horrela lortuta haren legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua-, honako hau erabaki du:

1 – Hasiera batean onestea Ordenantza Fiskaletako aldaketa 2017. urterako, espedientean ageri den moduan.

2 – Erabaki hau jendaurrean ikusgai edukitzea hogeita hamar egunez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki oholean ediktuak paratu ondotik, herritarrek edo bidezko interesa dutenek espedientea aztertu, eta erreklamazio, eragozpen edota oharra aurkeztu ahal izateko.

Halakorik ez balego, ordenantzen aldaketa behin betiko onartua geldituko da.

4 – ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guzietan pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatezaren emaniko erabazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

el señor alcalde.

Una vez finalizado el mismo la Corporación, con los votos a favor de los seis concejales de Geroa Bai y en contra de los cinco de EH Bildu –con lo que se alcanza la mayoría absoluta del número legal de miembros de la misma- acuerda:

1 °) Aprobar inicialmente la modificación de las Ordenanzas Fiscales para el año 2017, en la forma en que consta en el expediente.


2°) Que se someta el presente acuerdo a información pública durante treinta días, previa inserción de edictos en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.

En caso de que no se formularen, la modificación de ordenanzas se entenderá definitivamente aprobada.

4 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Ondoren, eta Toki Erakundeetan Seguidamente y conforme a lo establecido
Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide por el artículo 91.4 del Reglamento de



Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

5 – OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK

Maidar Arrieta, Mattin Etxabide eta Lorea Floresek hainbat galdera egin dute Alkatezaren bando bat ez delako zabaldu, Bortzirietako Euskara Batzordeak bidaliriko ereduaren arabera eta non iragartzen den euskara klaseak debalde direla. Alkate jaunak erantzun du erranez bandoaren testua ez datorrela bat errealitatearekin. Gai horien inguruan eztabaida luzea eman da.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zortziak eta berrogeita hamazazpi minutu direnean eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

5 – ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.

Los concejales Maidar Arrieta, Mattin Etxabide y Lorea Flores realizan varias preguntas en relación al hecho de que no se haya difundido un bando de la Alcaldía, conforme al modelo enviado por la Mancomunidad de Euskara de Bortzirriak y en el que se anuncia la gratuidad de las clases de euskera. El señor Alcalde responde que el texto del bando no se ajusta a la realidad. En torno a estas cuestiones se produce un largo debate.

Siendo las veinte horas y cincuenta y siete minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.